

## 6- Bezeroarekiko harremanak

*Bezeroekin harremanak* izateko garaian, zerbitzu automatizatua erabiliko dugula pentsatuta daukagu **web gune** baten bitartez, non bezeroak gurekin harremanetan jarri ahal izango diren **e-mail**-ez ([kartinnova@gmail.com](mailto:kartinnova@gmail.com)) edo **telefonoz** (686676656).




Lehen aipaturiko web guneak, denda fisiko batera joan behar ez izatea ahalbidetzen du. Izan ere, gure produktuaren informazio osatua dagoenez bertan, bezeroak nahi adina informazio eskuratu dezake.

Telefono eta e-mail az gainera, **sare sozialen** bitartez ere gurekin harremanetan jar daitezke. Gurekin harremanetan jartzeaz gain, gure produktuaren eskaintzen berri, promozio eta beste hainbat informazioz jabetu ahalko dira bertan.



Bezeroak gure produktuaren interesa gal ez dezan, web gune eta sare sozialetan informazioa berrituko dugu bi astez behin gutxienez. Horrela, gure produktuaren ezagutza gorena lortuko dute bezeroak.

Gainera, Kartinnovako kideok, jakinaren gainean egoteko ea zenbat bezero edo pertsona dauden interesatuak gure produktu berritzailean, web gune eta sare sozialetan kontadore moduko bat jarriko dugu eta zenbat pertsonak ikusten duten jakiteko. Horretaz gain, beraien iritziak uzteko leku jakin bat ere utziko dugu.



## B I S I T A

*Bezero berriak egiteko garaian, pneumatikoak egiten dituen enpresa batekin harremanetan jartzea modu ona dela deritzogu. Horrela, kontzesionarioekin hitz egin ondoren eta akordio batera iritsi ondoren, eskaintza moduko bat jartzea izango litzateke, non gure produktua erosten duten bezeroei, oparia emango zaien. Opari hori, aurrez pneumatiko enpresa horrekin adostutako pneumatikoak izango dira.*

